

FAMILIENTZAKO GIDA LABURRA



JAKIN BEHAR DOZUZAN
5ARRISKU

Adingabeak eta Internet →

Eskutik | Teknologia eta sare zozialak

5 arriskuak

internet-en

* Internetek, haur eta nerabeei ikasteko eta gizarteratzeko sekulako bidea emongo deutse,



Ohiko arriskuen barri izatea izango da,

arrisku horreei aurrea hartzeko eta teknologiaren erabilera seguru eta arduratsuan laguntzeko lehen urratsa..

HAUZURE ALABA IZAN LEITEKE.



oraindik prest ez badagoz be, aurre egin beharko deutesen egoeren aurrean jarriko dauz.



Ohiko 5 arriskuri buruz berba egingo deutsugu.



Aurre egitea guztion ardura da.



GROOMINGA

Noiz gertatzen da:

Heldu batek bere burua adingabetzat aurkezten dauanean.

Zer da:

Groominga, heldu batek interneten, adingabearen konfiantza lortzeko, identitate faltsua sortzen dauaneangertatuko da. Xedea, haur edota nerabearen irudi intimoak lortzea edota emozionalki haur edota gazte hori manipulatzeari izango da.

Zelan aurrea hartu:

- *Argazki intimorik ez deusela inori bialdu behar azalduz.*
- *Interneten mundu guztiak ez dauala benetan nor dan esaten gogoratu.*
- *Ezezagunekin alkarreragiten daben plataformak gainbegiratu.*

ALERTA-SEINALEAK

Heldua (k):

Bere burua adingabetzat aurkeztuko dau.
Argazki edo bideo intimoak eskatuko dauz.
Isilpeko alkarrizketa pribatuak izango dauz.
Konfiantza arin lortzen ahaleginduko da.

Adingabea(k):

Dei edota mezuak jasotzean, urduri edo
deseroso sentituko da.
Mezuak edo txatak maiz ezabatuko dauz.
Mugikor edota ordenagailua erabilten
dauanean, bakartu egingo da.
Hizkeran edo adierazpenean, ohikoak ez
diran berbak erabiliz, bat- bateko aldaketak
egingo dauz.

Online eginiko lagunartekoen sekretuak
gordetzeko kezka handia erakutsiko dau.

SEXTINGA

Noiz gertatzen da:
Irudi intimoak partekatzen diranean

Zer da:

Sextinga, nerabeen artean argazki edota bideo intimoak bialtzean datzan jarduera da. Hasiera baten, konfiantzazko testuinguruan egiten bada be, irudiok, baimen barik zabaldu daitekez eta izugarrizko mina eta kaltea eragin daikie.

Zelan aurrea hartu:

- *Pribatutasun digitalari buruz hitz eginez.*
- *Behin irudia bialduta, honen gaineko kontrola galdu dala azalduz.*
- *Norberaren eta gainontzekoen intimitatearekiko errespetua sustatuz.*

ARRISKU EGOERAK ETA ALERTA-SEINALEAK

Arrisku egoerak:

Argazki intimoak bialtzea.

Bikotekidearen edo lagunaren presioa izatea.

Argazkiak/bideoak baimen barik birbidaltzea.

Argazkiak/bideoak taldeetan edo sareetan
zabaltzea.

Igarri daitekezan seinaleak:

Sare sozial zein mugikorrez hitz egitean, oso
isil edota itxita agertuko da.

Ez deusez pantailak edo alkarrizketak
gurasoei erakutsiko.

Pribatutasunaz edo sexting-az berba egitean,
lotsatuta edota haserre erantzungo dau.

Bat- batean hasiko da aplikazio edo sare
barriak erabiltzen.

Lagunen edo bikotekidearen presioa sentituko
dauanez, urduritasuna erakutsiko dau.

ZIBERJAZARPENEA

Noiz gertatzen da:

IEskola-jazarpena (bullyingak) interneten jarraitzen dauanean.

Zer da:

Ziberjazarpena, eskola-jazarpena ingurune zein arlo digitalean luzatzea da. Gogoratu, sare sozialen zein mezularitza-taldeen bidez, irainak, isekak, zurrumurrak edota gizarte-bazterketa bikoiztu egin daitekela.

Zelan aurrea hartu:

- *Adingabeek hitzegiteko konfiantzazko guneak sortuz edo zabalduz.*
- *Erabiltzaileak blokeatzen edotagehiegizko portaerak salatzen irakatsiz.*
- *Ingurune digitalean be, errespetuzko baloreak indartuz.*

OHIKO MODUAK ETA ALERTA-SEINALEAK

Ohiko moduak:

Sare sozialetan edo mezularitza taldeetan irainak edo barre egitea.

Ikaskideen artean zurrumurruak zabaltzea edota gaizki esaka ibiltzea.

Txat edo online jokoetako taldeetatik kanpo iztea edo bakartzea.

Makurrarazteko, argazki edota mezuak zabaltzea.

.
.
.

Igarri daitekezan seinaleak:

Mugikorra erabili edo mezuak jaso ondoren, aldarte-aldaketak izatea.

Jakinarazpenak jasotzean, urduritasuna edo antsietatea sentitzea .

Online egiten dauanari buruz berba egitea saihestea edota alkarrizketak ezkutatzea.

EDUKI DESEGOKIETARAKO SARBIDEA

Noiz gertatzen da:

Umea edo nerabea bere adinerako egokiak ez diran edukietara heltzen danean eta horreek kalte egin deikeonean.

Zer da:

Internetek informazio kopuru izugarria eskuratzeko modua emongo dau baina jakina, dana ez da adin jakin batzuetarako egokia izango.

Zelan aurrea hartu:

- *Gurasoen pribatutasuna eta kontrolak behar dan moduan, zuzen, konfiguratuz.*
- *Plataforma barriak arakutzen dabezanean, adingabeei lagunduz.*
- *Arazodun edukiakzelan identifikatu azalduz.*

EDUKI EZ EGOKI MOTAK

Eduki sexual esplizitua:

Sexu- izaerako jarduerak edo biluztasuna erakusten dauan edozein material, adibidez, bideo pornografikoak edota alkarrizketa esplizituak.

Indarkeria:

Indarkeriazko jarduerak, erasoak edo emozionalki kaltegarriak izan daitekezan egoerak erakusten dabean edukiak.

Drogak eta substantzien abusua:

Drogen, alkoholaren edo tabakoaren erabilera sustatzen dauan materiala, baita gehiegizko kontsumoa erakusten dauzan bideoak be.

Arrazismoa eta xenofobia:

Aniztasunaren ikuspegitik eragin negatiboa izan daiken talde jakin batzuen aurkako gorrotoa edo diskriminazioa bultzatzen dauan edukia.

Informazio eza:

Adingabeak nahastu ahal dauan gezurrezko edo engainuzko informazioa. Berezi osasunari eta segurtasunari buruz hitz egingo deuskuna.

Elikadura- nahasmenduak:

Elikadura- jokabide ez osasungarriak sustatzen dauzan eduki edo komunitatea, besteak beste, anorexia edo bulimia.

Zorizkojokoak:

Jokoa eta apustuak sustatzen dauzan webgune edo aplikazioak, batik bat menpeko jokabideak eragin daitezkanak.

GAILUEN GEHIEGIZKO ERABILERA

Noiz gertatzen da:

Pantailen erabilerak lo egitea, ikastea, jolastea, kirola egitea edo harremanak izatea bezalako jarduera garrantzitsuak ordezkatzeko dauzanean.

Zer da:

Pantailen gehiegizko erabilerak atsedean, eskola-errendimendu eta giza-harremanetan eragin daiken egoera.

Zelan aurrea hartu:

- *Erabilera-ordutegiak ezarri.*
- *Eskuko telefonorik bako uneak sortuz (otorduetan, gauean).*
- *Pantailatik kanpoko jarduerak sustatu.*

OHIKO ONDORIOAK ETA ALERTA-SEINALEAK

Ohiko ondorioak:

Mugikorra, tableta edo kontsola berandu arte erabilteagaitik lo nahikorik ez egitea. Eskolako zereginetan edota eguneroko jardueretan arreta jartzea kostatzea. Jarduera fisikoko gitxiago egitea edo aire zabaleko jolas gitxiagotan jardutea. Familia eta lagunekin kalitatezko denbora gitxiago emotea.

.
.
.

Igarri daitekezan seinaleak:

Gailuen erabilera mugatzean, aldarde-aldaketak izatea.

Mugikorra eskura ez dauanean, antsietatea izatea edo haserre egotea.

Pantailek, zaletasun edota jarduera sozialen aurretik, lehentasuna izatea.

ETA HAU, ZURE SEMEA.



"Lehen urratsa,
arriskuen barri izatea
da; laguntzea, hitz
egitea eta digitalki
heztea da umeeek
seguru nabigatzeko
gakoa"

Iturriak:

- Begoñazpi Ikastolan interneteko segurtasunari buruz Ertzaintzako agentea dan Iker Legardóni egindako alkarrizketa ardatz izanik, EDUCAIDE Agaz alkarlanean, bileran jasotakoa.
- UNICEF España, INCIBE, Pantallas Amigas, MOE.